



	ESKULIBURUAREN GEHIGARRIA	Zbkia :	1
	KUDEAKETA POLITIKA	Ber :	0
		Data :	18/07/01

IES Escuela Agraria Derio/ Derio Nekazaritza Eskola BHren helburu nagusia landa garapenaren sustapenaren bidez nekazaritza formakuntza bultzatzea da.

IES Escuela Agraria Derio/ Derio Nekazaritza Eskola BHn lanean dihardugunon ustez, nekazaritza formakuntza eta landa garapena bat eginda ingurumenaren babesa izan behar dute helburu nagusia.

Gure eskolaren erronka nagusia **EAEko nekazaritza sektorearen profesionalizazioan** gertuko partehartzea izatean datza. Horretarako nekazaritza arloko formakuntza zikloak gure tresnarik eraginkorrena direlarik formakuntza profesionala bultzatzeko.

Sektore honek, beste hamaikak bezala, "bizi guztiko formakuntza" helburu izango duten berrikuntzak, ikerketak eta teknologia berriak formakuntza esparrura jauzia egin dezaten beharrezkoa du. Zentzu horretan, esparru horretakoak diren formakuntza ekimen guztietan parte hartzen du, hala nola, Lanbideren formakuntza planak.

IES Escuela Agraria Derio/ Derio Nekazaritza Eskola BHko lan taldea osatzen dugun Zuzendaritza eta langilegoa, ingurumenarekin errespetuz jokatu duen kalitatezko zerbitzua eskaintzeko konpromezua hartzen dugu. Hori gauzatzeko **UNE-EN ISO 9001:2015 kalitate araua eta Ekoescan ingurumen kudeaketa arauak** oinarri hartzen dituen Kalitate Kudeaketa Integratua (KKI) diseinatu eta indarrean jarri dugu.

Ondorioz eta **kudeaketa politikaren** bitartez, IES Escuela Agraria Derio/ Derio Nekazaritza Eskola BHko zuzendaritzak honako konpromezu hauek babestu eta ezagutarazten ditu:

- ☒ Gure jardueri dagozkien arauak eta lan esparrua betearazten direla bermatzea, bai eta eskolak bolondreski atxikitzen dituenak ere, etengabeko hobekuntza helburu izango dutelarik.
- ☒ Kudeaketa Politikaren helburuak eta asebetetze maila sistematikoki eta aldioro definitu, aztertu eta eguneratu, gure bezeroen asebetetze maila helburu nagusi gisa ezarriz.
- ☒ **IES Escuela Agraria Derio/ Derio Nekazaritza Eskola BH**n lana egiten duten pertsona guztiak gure kudeaketa politikarekin bat egin dezatela ziurtatu, komunikazioa eta informazioa lehenetsiz, erakundeko kide guztiak kudeaketaren ardura bere ere egin dezaten.
- ☒ Eskolako jarduerak sortzen duen kutsadura saihestu eta ingurumenaren zaintza eguneroko jardueran txertatu, gure eguneroko ingurumen jarduera hobetuz.
- ☒ Gure ingurumen jarduerak identifikatu eta aztertu eta gure langilegoari beharrezko formakuntza eskaini, beraien lanpostuetan gure konpromezua islatu dadin.
- ☒ Ingurumen araudiaz haratago joango den etengabeko hobekuntza lortzea gure erronketako bat da, horretarako urtero gure helburuak, helmugak eta programak berraztertuko ditugularik.

Sinatua: Verónica Arrieta Picó

IES Escuela Agraria Derio/ Derio Nekazaritza Eskola BHko zuzendaria